

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2009ko maiatzaren 6an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

2.- UDALTZAINGOAREN EGOITZA BARRIA EGITEKO PROIEKTUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Xedea

Udaltzaingoaren egoitza barria eregiteko exekuzino proiektua, segurtasun eta osasun plana, kalidadearen kontrolaren programea, eraikinaren liburua, obrak exekutatzeko eta ondoren udalak hartzeko beharrezkoa dan edozein dokumentazino, eta obrako Zuzendaritza Fakultatiboa behin-behinekoz esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2008ko zemendiaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak udaltzaingoaren egoitza barriaren proiektua esleitzeko baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban.

Bigarrena: Aitatutako kontratazino prozesura lau parte-hartzaile aurkeztu dira:

- NIP SA
- Joseba Rementeria
- Arkideiak
- Estudio K

Argudioak

Bakarra: 2009ko apirilaren 24an emondako txosten teknikoaren arabera, hauxe izan da eskaintza bakotxak lortutako puntuazinoa:

Eskaintzak	Bakotxaren prezioak, eurotan (BEZ barne)	Aurrekontuaren (69.600 euro-BEZA barne-) araberako beherapena	Prezioa 0-40	Epea (90 egun) 0-20	Diseinua 0-40	Guztira
NIP, S.A	52.200	% 25	40	20 (45 egun)	15	75
Estudio. k	57.884	% 16,8	26,9	6,7 (75 egun)	15	48,6
Joseba Rementeria	56.550	% 18,8	30,1	4,4 (80 egun)	10	44,5
Arkideiak s.l.p.	55.680	% 20	32	13,3 (60 egun)	12	57,3

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Udaltzaingoaren egoitza barria eregiteko exekuzino proiektua, segurtasun eta osasun plana, kalidadearen kontrolaren programea, eraikinaren liburua, obrak exekutatzeko eta ondoren udalak hartzeko beharrezkoa dan edozein dokumentazio, eta obrako Zuzendaritza Fakultatiboa behin-behinekoz NIP SA enpreari esleitzea, goiko taulan agertzen dan eskaintzearen arabera.

BIGARRENA: NIP SA enpreari jakinarazotea, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, 15 eguneko epean konpultsau barik daukazan agiriak (halan izatekotan) konpultsau beharko dauzala eta behin betiko bermea jarri beharko dauela, eta holan egin ezean, behin-behineko esleipena bertan behera geratuko dala.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2009ko maiatzaren 11n.

ONETSIA
ALKATEA